



# SOTERRAMIENTO, UN TREN DE DOBLE VÍA

HUMBOLDT, GURE ARTEAN

PAISAJES INDUSTRIALES  
DE DURANGALDEA

ANBOTOKO HEREJEAK

LA ESCUELA  
EXPERIMENTAL  
DE ELORRIO

DURANGOKO  
PLATERUAK

# astola

**ikerketa eta historia**

DURANGALDEKO URTEKARIA

10.zk 2016 • 5e



# Humboldt gure artean

*“Mendi artean ezkutatuta, Mendebaldeko Pirinioen bi aldeetan, mendeetan zehar bere hizkuntza zaharra kontserbatu duen herria bizi da...”*

 *Jose Mari Uriarte*

 *Txelu Angoitia*







**H**orrela hasi zuen Humboldtek euskaldunoi buruzko bere idazkietako bat. 1801ean egindako bidaiari buruzko hainbat gutun eta eskuizkribu utzi zituen Humboldtek. Dokumentu horietan, miresmenez betetako Euskal Herriaren erretratua egiteaz gain, bisitatutako lekuak deskribatzen zituen, Durangaldea, euren artean.

Baina, nor zen pertsonaia hori?  
Argi eta garbi dago ez zela edozein bidaiari.

Karl Wilhelm von Humboldt (Postdam 1767 – Tegel 1835) aristokrata prusiarra zen, Alexander von Humboldt geografo eta naturalista ezagunaren anaia. Kultur eta

Instrukzio Publikoko ministro izan zen, eta bera agintean zegoela sortu zen Berlingo Unibertsitatea. Estatuko ministro sekretu ere izan zen. Schiller eta Goethe poeten adiskidea zen. Filosofia politiko liberalaren teoriko handienetakoa eta hizkuntzalaritza modernoaren gurasoetako bat da.

Emaztearekin eta hiru seme-alabekin Espainian zehar bidaia luzea eta neketsua egin ostean, 1799ko irailetik 1800eko apirilera Parisera itzuli eta euskarari buruzko ikasketei ekin zien berriro Liburutegi Nazionalean. Landa inguruko gizarte batean ahoz transmititutako hizkuntza izanda, idatzitako lan gutxi zituena, hizkuntza ikasteko ezinbestekoa egin zitzaion herrialdera bertara bidaiatzea.

*Etengabeko zirrikituek punta zorrotzetan  
apurtzen zuten eskumako harkaitzen horma luze  
eta biluzitik behelaino zati zuriak mugitzen ziren.*



*Egun desatsegina egokitu zitzaien bidaiatzeko,  
behelainoa eta hotza.*



Parisetik irten eta 1801eko apirilaren 17an heldu zen Baionara. Bidaiaren helburua euskara zen, eta Durangoko apaiz batek, Pablo Pedro de Astarloak interes handia eragiten zion. Apaizari buruzko erreferentzia bikainak zituen, hizkuntzaren ikerlari handia omen zelako. Ez zen hori

bere helburu bakarra; hizkuntza hori hitz egiten zuten pertsonak, euren bizitzeko moduak, gizarte antolakuntza, sinesmenak, izaera... ere ezagutu nahi zituen.

Baionatik, kostaldetik etapak eginez, Ondarroara heldu zen, bertatik Markinara, eta Elgoibartik eta Bergaratik, Gasteizera. Ez zihoan bakarrik, Jorge Guillermo Bockelman Cadizera zihoan merkatari eta adiskideak, berarekin egin zuen bidaia hainbat egunez.

Maiatzaren 9an, goizez, Gasteiztik Durangora abiatu ziren,



## *Gasteiztik Durangora abiatu ziren, zaldiz, gidari batek lagunduta.*

zaldiz, gidari batek lagunduta. Otxandioraino, paisaia laua eta zer esan handirik gabea iruditu zitzaion Humboldt. Carolina emazteari gutun batean adierazi zionez, egun desatsegina egokitu zitzaien bidaiatzeko, behelainoa eta hotza. Gainera, gidariak inguru hura lapurrez betetako inguru zela esan zien, eta horrek arduraz bete zituen bidaiariak. Ondorioz, ez zioten larregi erreparatu paisaiari.

Urkiolako mendatera heltzean, baseliza baten ondoan baserri bat zegoen, eta Humboldték hau idatzi zuen: "... zur eta lur geratu ginen arte forma moduan gure aurrean

*altxatzen ziran harkaitz handi haiek ikustean" (...)* "Etengabeko zirrikituek punta zorrotzetan apurtzen zuten eskumako harkaitzen horma luze eta biluzitik behelaino zati zuriak mugitzen ziren; erdian, garbi eta libre, piramide isolatua altxatzen zen..." Oso egoera onean zegoen galtzada batetik jaitsi ostean, honela jarraitu zuen: "Mendi horien oinetan Mañaria dago, Bizkaian ikusi dudana herrixka zirraragarriena (...). Bertan ugariak dira pikondoak eta masustondoak. Milaka pauso gutxi lehenago, altueran, izena bere klima gogorrari zor dion Otxandion, eta Arabako gainerako lekuetan, ez da horrelakorik ikusten".



***“Erdian,  
garbi eta libre,  
piramide isolatua  
altxatzen zen”***

Mañaria eta Izturza artean, Etxaburutorre ikustean, hau idatzi zuen: *“Mendiaren oinetan dagoen sasitza trinkotik eraitsitako dorre zaharra altxatzen da, eta ohorezko aurri horrek nabarmendu egiten du ikusten den guztiaren erromantikotasuna”.*

## **Durangon**

*“Gaur egun bostehun eta berrogeita hamar familia inguru baino ez dituen Durangoko hiribildua herri garrantzitsua izan zen aspaldi...”. “... Lautada emankor batean dago, eta alde guztietara begiratuta, bidexka atsegin gorabeheratsuak ikusten ditugu harizti fresko eta orritsuetan (...)”*

Durangora heltzean Bockelman Bilbora joan zen, han berriro elkartzeko Humboldtekin, lo egin behar zuten ostatuko logelak usain txarra zuela iruditu baitzitzaion. Humboldt, Andaluziatik egindako aurreko bidaiari jasan behar izan zituen ostatuak eta bentak gogoratuz kontsolatzen zen: *“Ene Jainkoa, zer ez genuen emango*





***“Mendiaren oinetan  
dagoen sasitza trinkotik  
eraitsitako dorre  
zaharra altxatzen da, eta  
ohorezko aurri horrek  
nabarmendu egiten du  
ikusten den guztiaren  
erromantikotasuna”***

*sarritan horrelako logelak edukitzearen Andaluzian eta Granadan! Mahai handi bat daukat, eta haren gainean nire liburu eta paper guztiak, oso etxeoandre atsegina eta ohe garbia.” (...)*

Humboldt maiatzaren 9tik 13ra egon zen Durangon. Emazteari bidalitako gutun batean hau idatzi zuen: *“Oso egun alaiak igaro ditut Durangon. (...) Herrialdea bikaina da. Harizti txikiak, mahastiz inguratutako etxeak, basoz inguratutako belardi paregabeak, ikusi beharko zenituzke. Hemen nire kapitaina den apaiza oso gizon ona eta atsegina da, ilustratua, alai, umeen laguna, eta oso jakintsua.*



***“Baten izena eguzki  
leku da, bestearena  
aldapa etxea, bestearena  
harrizko mendi...;  
hori dela eta, euskara  
dakien edozeinek, izena  
entzunda bakarrik,  
jakingo du etxea non  
dagoen, bertan inoiz  
egon ez arren”***

*Bere arreta niretzat izan da egun osoan, paseatzera joaten naizen pare bat orduetan izan ezik. Gainerakoa bere etxean igarotzen nuen, eta bertan bere lagunak elkartzen ziren. Baina ez ziren pertsona harroputzak, herritar zintzoak baizik: idazkaria, herriko botikaria... denak bihotz onekoak eta ulerkorrak. Guztiak ere euren herrialdearen eta hizkuntzaren aurrean gogo biziz beteta, eta horren inguruan modu zientifikoan aritzeko zentzu handiarekin.*

*Herrialde honek dituen berezitasun guztiak erakutsi dizkirate; isolatuta dauden baserrien ganbaretara igo gara, eta lehenengo egun biak igaro ostean, D. Gillermo izenez ezagutzen ninduten, eta horrela agurtzen ninduten kaletik nik ezagutu ere egiten ez nituen pertsonak. (...)*



*“Denek plazan egiten dute dantzan, igande eta jaiegun guztietan, udalerrriaren kontura”*

*Eta aurkikuntza bikaina egin dut hemen. Nire apaiza euskara oso ondo ezagutzen duen pertsona da (...), eskuz idatzitako lan bat dauka, eta inprimatzeko aukera baino ez zaio falta. Horren laburpena egin dut, eta aurrerago kopia batzuk bidaliko dizkit”.*

## **Baserria**

la arratsaldero, Humboldték osteratxo bat egiten zuen inguruko baserrietakoren batera. Erdi harrizkoak, erdi egurrezkoak ziren solairu biko eraikinak aurkitu zituen. Garai hartan ohikoa zen tximiniarik ez edukitzea, eta baita xirmendu orritsudun mahatsondoak osatutako mahasparrak ere. Deigarria egin zitzaion idiek tiratutako gurdia

txistu oihukaria, ardatzarekin batera biratzen zuten egur trinkodun gurpilekin. Kortara heltzean, idiek burua ateratzen zuten sukaldera ematen zuten zabalguneeetatik. Horrela, garbi zeuden, etengabe zainduta, familiaren ekonomiako elementu garrantzitsu gisa. *Garaijaren*, garaiaren, existentzia ere aipatzen du, garai horretarako dagoeneko eraikin zaharkitua eta ez oso ugaria zen arren.

*“Gaur egun, oraindik, Euskal Herriaren barrualdean biztanleak isolatuta, sakabanatuta daude, baserriak ere isolatuta daude, sarritan distantzia handia dago batetik bestera, bertako biztanleek parrokia bereko kide direlako baino ez dute udalerrri bakarria osatzen, eta elizaren inguruan baino ez da nolabaiteko etxe kopurua ikusten, herrixka moduan. Herrixkei Elizate ere esaten zaie, (...)*



***“Nik neuk 50 edo 100 gizon ikusi nituen zezen horietakoren baten atzean arinetan”***

*Animalia libre uzten zen, plaza batean, eta jendearen probokazioak jasaten zituen, kapekin, txapelekin eta zapiekin, danbolinderoak musika jotzen zuen bitartean.*

*Laborantzako etxe horietako bakoitzak bere izena du, gehienetan lekua kokalekutik datorren izena.*

*Baten izena eguzki leku da, bestearena aldapa etxea, bestearena harrizko mendi...; hori dela eta, euskara dakien edozeinek, izena entzunda bakarrik, jakingo du etxea non dagoen, bertan inoiz egon ez arren. Bertan bizi den familiak ere izen bera darama, eta bien adin sinestezinak horren noblezia erakusten du”.*

## **Dibertsioak**

*“Igande batean Durangon nengoela, ezin izan nuen dantzarako plaza bisitatu barik utzi (...) Denek plazan egiten dute dantzan, klase bereizketa barik, igande eta jaiegun guztietan, udalerraren kontura, eta zainketa publikoaren esanetara (...)”*

Humboldt bere anfitrioi berrien ohiturak ezagutzen joan



zen. Udalak ordaintzen zuen danbolinderoa ikusten zuen, txistua eta danbolina joz umeen eta gazteen aurrean. Bitartean, helduak pilota ikusten zeuden, euskaldunek asko atsegin zuten jokoan, hain zuzen ere. Neska-mutilak elkartu ondoren, *carricadantza* (karrikadantza) hasi zen. Dantza horren deskribapen zorrotza egin zuen.

Humboldték egin zituen dantza autoktonoen deskribapen horietako bati esker, Durangoko Kriskitin dantza taldeak XIX. mendearen amaieran desagertu zen Brokel Dantza izenekoa berreskuratu ahal izan du.

Gure bidaiariak dokumentatu zuenez, oso sustraituta zegoen denborapasa, hiltegiara eramaten zituzten zezenen aurrean arineketan egitea zen. Animalia libre

uzten zen, plaza batean, lurretik erdi solte zihuan soka batekin lotuta, eta jendearen probokazioak jasaten zituen, kapekin, txapelekin eta zapiekin, danbolinderoak musika jotzen zuen bitartean. *“Dena den, alkate batzuek jokia debekatu egiten dute, izan ere, hori egiten den bakoitzean, tailer gehienak hutsik geratzen dira. Nik neuk 50 edo 100 gizon ikusi nituen zezen horietakoren baten atzean arineketan”*.

Ekainaren 1ean eman zion amaiera bidaiari, eta hilabete bereko 15 inguruan heldu zen Parisera. Euskaldunoi eta gure hizkuntzari buruzko azterlanekin jarraitu zuen, nahi baino motelago, bizitza politikoak eskatzen zizkion konpromisoak zirela eta, eta bere lanek euskara ikertzeko interesa piztu zuten Europako hizkuntzalarien artean.



***“Helduak pilota  
ikusten zauden,  
euskaldunek asko  
atsegin zuten jokoan”***

Humboldten idazkiak oso pixkanaka heldu zaizkigu; modu anarkikoan eta sakabanatuta argitaratu dira, eta gaztelaniara egindako itzulpenak ere hobeak izan zitezkeen. 1817an alemanez eta 1923an gaztelaniaz argitaratu zen *“Correcciones y adiciones a la 1ª sección del segundo volumen de la obra intitulada Mithridates sobre la lengua cantábrica o vasca”* lana, eta 1821ean alemanez *“Investigaciones sobre los primeros habitantes de España con la ayuda de la lengua vasca”* lana, 1879an frantseseko bertsiotik gaztelaniara itzulitakoa.

Bigarren lan horretan Humboldtak esaten duenez, iberiarren, Espainiako antzinako biztanleen, hizkuntza, euskara zen; teoria hori ez zen berria, eta Euskal-iberiartasun izenez ezagutzen zen.



*Gaur egun, oraindik,  
Euskal Herriaren  
barrualdean biztanleak  
isolatuta, sakabanatuta  
daude, baserriak ere  
isolatuta daude, sarritan  
distantzia handia dago  
batetik bestera.*

Wilhelm von Humboldten iritziz euskaldunak nazioa dira, hizkuntzak direlako nazioak mugatzen edo osatzen dituztenak, eta ez estatu politikoek edo lurralde bateko aginteen batasunak. Dena den, nahiko ezkorra zen hizkuntzaren etorkizunari buruz, euskal nazioaren eta hizkuntzaren desagertzea denbora kontua baino ez zela uste baitzuen. Oker ote zebilen?

**JOSE MARI URIARTE**

HISTORIADOR